

## BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5472

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 15ekoa, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendariarena, aditzera ematen duena Aralar aldeko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana egiten hasi dela, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 26. artikuluan ezarritako kautelazko babesaren ondorioetarako.*

Aralarko eremua natura-balio handiko eremua da, eta gaur egun natura-ondarearen bi eremu babestu daude han: (1) naturagune babestua (natura-parke bat da), eta (2) Natura 2000 Sareko naturagune babestua (kontserbazio bereziko eremu bat da).

Izan ere, Aralar aldeko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez onartu zen. Gero, eremua natura-parke izendatu zen, Aralar Aldea Parke Naturaltzat jotzen duen apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuaren bidez.

Geroago, maiatzaren 31ko 84/2016 Dekretuaren bidez (84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena), kontserbazio bereziko eremuaren babes-figura hori eratu zen, natura-parkearen mugak gainditzen zituen lurralde batean eratu ere. Hala ere, maiatzaren 31ko 84/2016 Dekretuaren azken xedapenetako lehengoan jada ezarri zen izapideak hasiko zirela «parke naturalaren eta kontserbazio bereziko eremuaren mugak zehazki bat etor daitezten eta NBAPa naturagune babestuen tipologia biak arautzen dituen dokumentu bakarra izan dadin».

Izapidetze honen xedea da lurralde horiek –kontserbazio bereziko eremukoa eta natura-parkekoa– bat etortzeko hartu behar diren neurriak hartzea.

Mota horretako kointzidentziak aurreikusita, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 38.1 artikulua xedatzen duenez, leku berean naturagune babestuen hainbat kategoria gainjartzen direnean, babesaren koherentzia eta kategoria bakoitzari aplikatu beharreko araubideen arteko koordinazioa bermatzeko, eremu bakoitza erregulatu duten arauak eta tipologia bakoitzaren plangintza-tresnak dokumentu integratu bakar batean bateratu beharko dira. Artikulu beraren 2. apartatuak ezartzen duenez, gainjartzen diren kategorien artean natura-baliabideak antolatzeke plan bat duen bat dagoenean, integrazioa plangintza-tresna horretan gauzatu behar da.

Era berean, apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bidez Aralar aldeko Natura Baliabideak Antolatzeke Plana onartu zenetik, arauetan funtsezko mugarriak izan dira –bereziki, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea eta Euskadiko Natura Ondarea Babesteari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legea–, antolatzeke planetan eta biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzeko eta lehengoratzeko zereginean eragiten dutenak.

Orobat, erabakitasunez aurrera egin da ingurumen-alderdiak politika sektorialetan integrazten, ingurumen-ebaluazioaren bidez; batez ere, politika horiek ingurumen-interes handiko espazioetan garatzen direnean edo haiei eragiten dietenean.

Horregatik, egin beharreko egokitzapenen garrantzia kontuan hartuta, komenigarria da baliabide naturalak antolatzeke planaren aldaketa hutsa ez egitea, baizik eta baliabide naturalak antolatzeke plan berri bat onartzea Aralarko eremurako.

2025eko abenduaren 22a, astelehena

Horri dagokionez, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 25.2 artikulua xedatzen du Aralar eremuko natura-baliabideak antolatzeko plana onartzeko izapideak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean araututakoarekin bat etorritik egin behar direla.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12.1 artikulua arabera, xedapen orokorrek egiteko prozedura xedapen horien gaian eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da.

2025eko abenduaren 12ko Aginduaren bidez, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuak ebatzi zuen Aralar aldeko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana egiteko prozedura hastea.

Bestalde, azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 25. artikulua 2. puntuan ezartzen duenez, prozedura hasteko agindua eman ondoren, prozeduraren hasiera jakinaraziko da natura-ondarearen arloko zuzendari eskudunaren ebazpen bat EHAAren argitaratuta, 26. artikuluan jasotako kaute-lazko babesaren ondorioetarako.

Horrenbestez, eta bat etorritik abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaz Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen baita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aralar aldeko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana egiten hasi dela jakinaraztea, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 26. artikuluan ezarritako kaute-lazko babesaren ondorioetarako.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 15a.

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren zuzendaria,  
ADOLFO URIARTE VILLALBA.